

## **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusiarekin bat etorritz, Udal honek eraikuntza, instalazio eta obren gainko zerga ezarri eta exijitzen du.

#### **2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrriaren eremu osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGA EGITATEA**

#### **3. artikulua**

Hirigintzako lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea zerga honen egitate zergagarria da, lizentzia lortua izan nahiz ez, baldin eta lizentzia ematea Udal honi badagokio, eta hori esku-hartze erregimenean, udalari badagokio lizentzia ematea, eta bai aurretiko jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena eman behar bada.

#### **4. artikulua**

Hurrengo kasu hauek zerga honi dagozkion egitate zergagarriak dira:

1. Eraikuntza obrak edo solairu berriko instalazioak.
2. Edozein eraikuntza edo instalazio handitzeko obrak.
3. Edozein eraikuntza edo instalazioaren egitura uki dezakeen aldaketa edo erreforma obra.
4. Edozein eraikuntza edo instalazioaren kanpoko itxuraren aldaketa obra.
5. Eraikuntzen barneko antolamendua aldatzen duten obrak, haien erabilera kontuan hartu gabe.
6. Behin behineko izaerarekin egin behar diren obrak, Euskadiko Autonomi Erkidegoko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 36 eta 37. artikuluek aipatzen dituenak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8. Lur erauzketak, lauketak, indusketa eta lurreratze erako lur mugimenduak, salbuespen hauekin: onartutako edo baimendutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu bat gauzatzeko obra.

9. Eraikuntzak botatzea, hurre-hurreko aurri deklarazioetan izan ezik.

10. Lurrazpiko instalazioak, besteak beste erabilera hauek dituztenak: aparkalekuak, industri, industri, merkataritza edo lanbide jarduerak, zerbitzu publikoak edo lur azpiari ematen zaion beste edozein erabilera.

11. Bide publikoan ikusteko moduan jartzen diren propaganda kartelak.

12. Gaitasun ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten eta era berean obra hirigintzako baimena beharrezko duten obra, eraikuntza edo instalazioak.

## **5. artikulua**

Jabari titularitatea Udalarena duten higiezinetan egin daitezkeen obra, eraiketa edo instalazioak ez dira egongo zerga hori lotuta, obraren jabea Udala bera denean.

## **III. SALBUESPENAK**

### **6. artikulua**

1. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita daude, Estatu, Komunitate Autonomo, Lurralde Historikoko edo Entitate Lokalaren jabetzako eraikuntza, instalazio edo obrak, zerga dagokienak, helburu hauek dituztenean: errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako saneamendua eta herrietako hondakin uren saneamendua, nahiz eta gestioa Organismo Autonomoren eskutan egon, inbertsio berriko obrak izan nahi kontserbaziokoak

2. Eliza Katolikoa, Estatuaren eta Sede Santuaren arteko 1979ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoei buruzko Akordioan aipatzen dituenaren arabera. (2011eko ekainaren 5eko Aginduak Eraikuntza, Instalazio eta Obraren gaineko zerga sartzan du Akordioaren IV. Artikuluaren 1. b) idatz-zatian; Akordioa da Estatu Espainiarren eta Sede Santuaren arteko 1979ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoei buruz)

## **IV. ZERGAPEKOAK.**

### **7. artikulua**

1. Zerga hau ordaintzera behartuta daude hurrengo hauek: Zergen Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak, horiek eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak direnean eta nahiz eta eraikuntza, instalazio edo obra hartu duen higiezinaren jabeak ez izan

Aurreko paragrafoan finkatutakoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzak joko da eraikuntza, instalazio edo obraren gastuak ordaindu dituen.

2. Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasiboak, zergadunak, egin ez badu, subjektu pasibo ordezkotzat joko dira, lizentziak eskatu dituztenak, baldin eta aurretiko jakinarazpena aurkezten badute, erantzukizunezko adierazpena egiten badute, edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

Ordezko horrek zergadunari eskatu ahal izango dio berak ordaindutako zerga tipoaren zenbatekoa.

## **8. artikulua**

1. Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasiboak, zergadunak egin ez badu, subjektu pasibo ordezkotzak joko dira, lizentziak eskatu dituztenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

2. Dena den, Udal Administrazioak zergadunaren ordezkoari eskatu ahal izango dizkio identitatea eta pertsonaren helbidea edo zergadun izaera duenaren Entitatea.

## **V. ZERGA OINARRIA**

### **9. artikulua**

1. Zergaren oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da, eta benetako kostutzat hartuko da, zergaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazioa edo obra gauzatzeko egiten dena.

2. Ez dira oinarri zergagarrikotzat hartuko balio erantsiaren gaineko zerga eta erregimen berezietako antzeko zergak, tasak, prezio publikoak eta izaera publikoa duten tokiko gainontzeko ondare prestazioak, nahiz eta kasuren batean eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia izan; eta ez dira oinarri zergagarrikotzat hartuko profesionalen ordainsariak, ez eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostua zehatz-mehatz jasotzen ez duen beste inolako kontzepturi.

3. Udalaren lizentziarik gabeko, aurretiko komunikaziorik edo erantzukizunezko adierazpenik gabeko eraikuntza, instalazio edo obraren kasuan, udal administrazioak finkatuko du oinarri zergagarria.

## **VI. ZERGA KUOTA**

### **10. artikulua**

Zergaren kuota zehazteko, oinarri zergagarriari %5eko karga tasa aplikatuk behar zaio.

## VII.- HOBARIAK

### 11. artikulua

#### 1. HOBARIAK

#### **A. Ekainaren 30eko 10/1998 Foru Arauaren 4.2 artikulua eta letra idatz-zatian ezarrita dagoenarekin bat etorriz, martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauaren arabera, arrazoi sozialengatik, interes berezikoak eta udal erabilerarako aitortzen ditu honakoak:**

A.1 Partikularrek egiten dituzten obrak lurzoruetan edo instalazioetan, baldin eta horiek titularitate pribatua eduki arren erabilera publikoko erregimenean badaude, hirigintzako planeamenduak horrela xedatuta.

A.2 Hegazkinek teilatuetan egiten dituzten kalteen ondoriozko obrak.

A.3 Obrak baserrietan eta nekazaritza ustiapenetan, baso ustiapenetan eta/edo abere ustiapenetan, baldin eta nekazari eta/edo abeltzain titularitate-egiaztagiria eduki eta Derioko udalerrian erroldatuta egon eta baldintza hauek betetzen dadituzte:

a) Eraikuntza, instalazio edo obra dagoen lurrak bakarrik erabiliko dira nekazaritza, baso eta/edo abere ustiaketarako. Eta hori, egiten den ustiaketa edo jarduera motaren ziurtagiriarekin egiaztatuko da.

b) Obra egiteko aurrekontua da 30.000.- € edo gutxiago

Kasu berean eta obra egiteko aurrekontua zenbateko hori baino handiagoa denean, lehenengo 30.000 euroen gainean ezarriko da hobaria.

A.4 Eraikuntzen fatxadak pintatu eta/edo berriztatzen denean, baldin eta udal teknikariak proiektuaren aldeko iritzia eman badu eta beharreko lizentzia ematen bada.

A.5 Edozein eraikuntza, instalazio eta obra egitea, baldin eta horrek Eusko Jaurlaritzaren dagokion Sailak egindako Ziurtagiria badauka, non obra horiek etxebizitza birgaitzeko kalifikazio barnean daudela egiaztatzen den.

Idatz-zati honek aipatzen dituen obrentzako hobaria izango da: kuota zenbatekoaren %60a, salbu lehenengo idatz-zatian ezarritakoa, honek %95a izango du. Hobari hori ezarriko da behin betiko likidazioa onestean.

#### **B. %50eko hobaria izango dute honako eraikuntzek:**

B.1 Babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza.

B.1. Babes publikoko etxebizitza berrien eraikuntza. Hobari hau ez zaie inola ere aplikatuko berritze, aldatze edo birgaitze obrei, baldin eta horiek etxebizitza

babestuetan egiten badira, eta horiek eraikitzeke emandako hirigintza-lizentziaren babespean ez badaude.

B.2 Eguzki-energiaren bidez beroa edo elektrizitatea sortzeko sistemak instalatzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako, baldin eta aurretik eginda dauden eraikinetan edo eraikuntzetan egiten badira.

Hobari hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioetan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea.

Hobari hau bakarrik aplikatuko zaie eguzki-energia aprobetxatzeko sistemetarako erabiltzen diren diru kopuruei, baldin eta inbertsio hori egitea ez bada nahitaezkoa indarrean dagoen legediaren arabera.

C. Hobaria emango da, %90 artekoa, edozein eraikuntza, instalazio edo obra dela bide, lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetan oztopo arkitektonikoak kentzen badira, eta baita ere, edozein eraikuntza, instalazio edo obra egin behar bada igogailua jartzeko zerbitzu hori lehendik ez badaukate. Lehendik dauden oztopoak ezabatuko diren eraikuntza, instalazio edo obra hori handiago baten parte bada, hobaria oztopo arkitektonikoak kenduko dituen edo igogailua jarriko dituen eraikuntza, instalazio edo obrari aplikatuko zaio bakar-bakarrik.

2.- Hobarien araubide hau ezin izango da aldi berean ezarri, beraz, hobariko zenbatekorik handiena ezarriko da, eta hobari hori ezarriko da obraren behin betiko likidazioa onestean.

3.- %90eko hobaria izango du subjektu pasiboak ordaindu behar duen tasak, , aurreko idatz-zatietan adierazi diren eraikuntza, instalazio eta obra tasei dagokien hirigintza lizentzia emateagatik.

A.1 Idatz-zatian kontenplatuta daudenak gertatzen direnean, hobaria %100ekoa izango da.

4. Dagozkion hobariak eta aurreko paragrafoan kontenplatutako kenketa aplikatu eta gero, hari dagokion kuota ezin da izan 12 € baino gutxiago.

## **VIII. SORTZAPENA**

### **12. artikulua**

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hastean gertatzen da, nahiz eta bidezko den lizentziarik ez eduki, edo aurretiko jakinarazpena edo erantzukizuneko adierazpena ez aurkeztu, kasua denean.

## **IX. KUDEAKETA**

### **13. artikulua**

Aginduzko lizentzia ematerakoan edo ez bada lizentzia eskatu, eman edo ukatu, eta eraikuntza, instalazio eta obra egiten hasten bada, aurretiko jakinarazpena edo

erantzukizunezko adierazpena egiten bada, behin-behingo likidazioa egingo da eta oinarri zergagarria interesatuek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia izan bada; horrela ez bada, udal teknikariek, proiektuaren kostuaren arabera, zehaztuko dute oinarri zergagarria.

#### **14. artikulua**

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, behin-behineko likidazioa egiteko, (proiektu aldatuaren arabera, lehenbiziko likidazioaren zenbatekoa gainditzen duen kopuruaz) aurrekontu berria aurkeztu beharko da.

#### **15. artikulua**

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren benetako kostua ikusiz, udal administrazioak, bidezko administrazio egiaztapen eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, oinarri zergagarria, bidezko behin betiko likidazioa eginez eta dagokion zenbatekoa subjektu pasiboari eskatuz edo, hala gertatuz gero, itzuliz.

2. Aurreko atalean xedatuaren ondorioarako, obra bukatu edo behin-behinerako onartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitortpena aurkeztuko da udal administrazioak jarriko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, ahal denean dagokion Kolegio Profesionalak ikus-onetsita, non ziurtatuko den obraren kostu osoa, edo kasua denean, fakturek BEZaren araudia beteko dute, egingo diren obrak deskribatuko dituzte xehetasunez obra edo instalazio eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorriz.

Derioko Udalak pertsona interesatuei eskatu ahal izango die beharrezkotzat jotzen dituen dokumentazioak aurkeztu ditzaten, Zergaren behin betiko likidazioa egiteko xedearekin. Legeak jartzen dituen epeetan, formulatutako errekerimenduak betetzen ez dutenak beharreko zerga-haustean zerga-zigorrean eroriko dira, dokumentu horiek beharrezkoak diren neurrian adierazpena konprobatzeko eta likidazioa behin betiko egiteko.

Beharreko konprobaketak egin eta gero, hori dagokion behin betiko kuota behin-behineko kuota ordainduaren baino gutxiago edo gehiagokoa bada, Udal Administrazioak behin betiko likidazioaren zergadunari jakinaraziko dio, diru-sarrereren epeak eta beharreko errekursoak adierazita.

#### **16. artikulua**

Isiltasunean administrazio positiboaren aplikazioagatik emandako lizentziak, espresuki emandakoaren balio bera izango du zergaren likidaziorako.

#### **17. artikulua**

Udalak zerga hau eskatu dezake auto-likidazio erregimenean.

## **18. artikulua**

Lizentziaren titularrak, baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakitzen badu, idatziz egindako errenunziaren bitartez, Udalak eginiko behin-behineko likidazioa itzuli edo deuseztatu egingo du.

## **19. artikulua**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo bertan behera utziko du, baldin eta titularrak lizentzia berritzea eskatzen ez badu eta Udalak baimena eman, eta udal lizentzia lortu beharrari lortutako eraikuntzak, instalazioak eta obrak ez badira egin.

## **X. AZKEN XEDAPENA.**

Honako Ordenantza hau 2016ko urriaren 20ean izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2017ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

Aurrekontuen gaineko Foru Arauek edo zuzenean aplikatu beharreko bestelako arau edo xedapenen batek aldaketaren bat eragiten badu tasa honen araubidean, ezer adierazi barik aldatuko da Zerga Ordenantza hau.